

WWW.PUNTU.EUS

## .EUS, ZURE ESPRESIO DIGITALA

ERREGISTRATU .EUS DOMEINUA ETA ZABALDU ZURE NORTASUN DIGITALA

Interneten egon behar duzula uste dugu, baina ez edonola. Teknologia proaktiboa dugu ardatz, mundu digitalari ekarpen propioak egiten dizkiogu.

Zure segurtasun digitala bermatzea da gure zeregin nagusia. Gure ezagutza zure eskura jartzen dugu, kalitatezko zerbitzuak eta konponbideak eskainiz, modu argi eta zuzenean. Gardenak gara gure ekintzetan eta; zure alboan gaude behar duzun guztiarentzat. Gurekin, gauzak ondo aterako direnaren konfiantza izango duzu.

15.000 +  
DOMEINUAK

51  
HERRIALDE

% 90  
DOMEINU  
BERRITUTA

% 5  
HAZKUNDEA

% 0,3  
BATEZ BESTEKO  
ABUSU-TASA

% 100  
EBATZITAKO  
ABUSU-KASUAK

48  
ERREGISTRATZAILE  
AKREDITATUTA

# PUNTU.EUS

PUNTUEUS  
www.puntu.eus  
+34 943 085 051  
info@puntu.eus

ERABILERA DESEGOKIAK  
complaints@puntu.eus

LAGUNTZA TEKNIKOA  
laguntza@puntu.eus

PUNTU  
•EUS ZURE  
ESPRESIO  
DIGITALA

## ZIBERSEGURTASUNEKO PARTNER NAGUSIEKIN INDARRAK BATUTA, ZURE DOMEINUA ZAITZEN DUGU.

Zibersegurtasuneko erakunde ofizial nagusiekin lankidetzak estrategikoak garatu ditugu. Aktiboki parte hartzen dugu, kide gisa, tokiko eta nazioarteko kluster nagusietan.

LANKIDETZAK:



BERRIKUNTZA ETA SEGURTASUNA  
BATZEN DITUEN PUNTUA

# 01 PREBENTZIOA

DNS Abusuaren prebentzio proaktibora bideratzen dugu gure estrategia. Gure lanarekin euskal gizartea iruzurra jasatetik babesten dugu eta .EUS webguneak, gainera, mehatxuetatik babesten ditugu. Gure araudia domeinuak babestera bideratuta dago, NIS2 zuzentaraua aplikatuz. Zibersegurtasunaren ulermena sustatzen dugu, funtsezko tresnak eskaintzen ditugu eta babes-zerbitzuen alde egiten dugu.

## HEZKUNTZA


Zibersegurtasunean heztea sustatzen dugu, ikasleei eta profesionalei prestakuntza eskainiz. Gure ekimenen artean ikasleentzako programak eta proiektuak daude, eta lanbide-trebakuntza bideratzen dugu tresna eta tailer espezializatuen bidez.

## TRESNAK ETA ZERBITZUAK

.EUS domeinuaren erabiltzaileen webguneen segurtasuna indartzen jarraitu nahi dugu, prebentziorako soluzio eta tresna aurreratuak garatuz eta eskainiz.

## MARKEN BABESA


Edozein markarentzat funtsezkoa da online identitatea gordetzea eta hirugarrenen usurpazioa saihestea. Horregatik, PUNTUEUSen zure marka zaintzen dugu, marka ez dadin urratu. Horretarako, modu proaktiboan lan egiten dugu, markentzat babes-zerbitzuak ezarriz.



# 02 MONITORIZAZIOA

PUNTUEUSen zeregin garrantzitsuenetako bat .EUS komunitate osoaren segurtasun digitala zaintzea da, webgune guztiak egunero monitorizatuz.

Jarduera maltzurak eta zibererasoak detektatzen ditugu, arriskuak eta mehatxuak saihesteko. Aldi berean, ICANNen DNSaren abusuaren aurka borrokatzeko politika betetzen dela bermatzen dugu.



## DOMEINUEN ETENGABEKO ZAINTZA

DNSaren abusua etengabe monitorizatzen ditugu eta prozesuak integratzen ditugu, azken belaunaldiko tresnak erabiliz. Webguneen erabilera desegokia goiz atzematea eta arriskuen eta mehatxuen prebentzioa funtsezkoak dira erantzun eraginkorra emateko. Konprometitutako webgune bat detektatzen dugunean, zurekin harremanetan jarriko gara.

## GARDENTASUNA

Zibergaizkileei aurre hartzeko adierazle nagusiak behatu, ikertu eta aztertzen ditugu. Gardentasunarekin dugun konpromisoaren islada dira zibersegurtasunaren inguruan argitaratzen ditugun datu zehatzak. Horrela, jendarteari segurtasunaren egoerari buruzko informazio baliotsua ematen diogu.

## KONPROMISOA

Pornografian haurren abusua eta emakumeen aurkako tratu txarrak saihesteari lehentasuna emateko konpromisoa hartu dugu. Ingurune digitalean, pertsonen ongizatea, eta biztanleria zaurgarriena berariaz, edozein esplotazio edo min motatik babesteko lan egitea dugu helburu.

# 03 ZUZENTZEA

Detektatutako abusu kasuen aurrean azkar erantzuteak arriskuak murriztea ahalbidetzen digu. Baita, eraso gertatu aurretik aurreikusteko gai izatea ere.

## LANKIDETZA FUNTSEZKO BAZKIDEEKIN

Zibersegurtasunean espezializatutako bazkideekin egindako lankidetzak akordioei esker, abusu-kasuei aurre egiten diegu, eta, sarri, kaltea gertatu aurretik mehatxua ebazteko gai gara.

## ZERBITZU TEKNIKO ESPEZIALIZATUA

Puntu kritikoetan berehalako laguntza teknikoa eskura jartzen dugu. Kanal guztiak zabalik ditugu: telefonoa, posta elektronikoa, txata edo aurrez aurreko bilerak.

# BABES + ZERBITZU PROFESIONALAK ETA ZIBERSEGURTASUNEN TRESNAK

## GLOBALBLOCK

Blokeatu zure izena ehunka luzapenetan

GlobalBlockek, domeinu-izenak blokeatzeko munduko lehen zerbitzu bateratuak, bezero baten markarekin bat datozen izen erabilgarri guztiak blokeatzen ditu berehala ehunka domeinu-luzapenetan, .EUSen barne. Aurrekaririk gabeko babesa ematen du markaren izenaren kointzidentzia zehatzetan.

## BLOCK.EUS

Blokeatu zure .EUS izenaren milaka aldaera

Zerbitzu aurreratu honek identifikazio eta blokeo mekanismoak erabiltzen ditu typosquatting, phishing, iruzur eta marka-identitatearen mehatxuei aurre egiteko. Antzeko domeinu-izen faltsuak eskuratzea saihesteko aukera ematen du, .EUS domeinuaren milaka aldaera blokeatuz phishing-erasoak saihesteko eta arintzeko diseinatutako teknologiararen bidez.

## ABUSEMONITOR.EUS

.EUS webgune guztien eguneroko monitorizazioa

Tresna aurreratuak integratuz, gure zerbitzuak .EUS komunitatearen segurtasun digitala bermatzen du, webgune guztien eguneroko monitorizazioaren bidez. Ikuspegi oso horrek aukera ematen du jarduera maltzurak eta eraso zibernetikoak behar bezala identifikatzeko, arrisku potentzialei aurre hartuta. Gune konprometitu bat detektatuz gero, ebazpenean laguntzeko neurriak hartzen ditugu, baita asmo maltzurren kasuetan domeinua blokeatu ere.

## WEBTEST.EUS

Ebaluatu zure webgunea

Webguneen autoebaluaziorako tresna erabilerraza da eta webgunearen segurtasun maila ebaluatzeko diseinatuta dago. Helburua autodiagnosia erraztea da, erasoaren arriskua gutxitzeko eta datuen tratamenduari eragiten dioten baldintzak betetzeko.

## DNSSEC eta SSL

DNS zerbitzariaren segurtasuna hobetzen du DNSSECek, .EUS domeinuek jarduera kaltegarriari aurre egitea ahalbidetuz. Gainera, .EUS domeinu bakoitzak lizenperen SSL ziurtagiri eskaintzen du doan, eta horrek konexio segurua eta zifratua bermatzen du, webgunearen zibersegurtasuna indartuz.

